

IRAGARKI BAT BILUZTEN

1.- Deskribapena

Prentsan azaltzen diren publizitate-iragarkien azterketa kritikoa egitean datza.

2.- Helburuak

- Publizitateak gudan duen eragina ikustea.
- Iragarkiak modu kritikoan aztertzearen garrantziaz jabetzea.

3.- Partaideak

Gutxienez 10 pertsona.
Adina: 14 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Egunkari, aldizkari eta abarretako publizitate-iragarkien zatiak.

5.- Abiapuntuko arauak

Talde handia.

6.- Garapena

Taldekide bakoitzak aukeratu dituen iragarkiak besteei erakutsiko dizkie.
Ondoren, taldeak galdera batzuei erantzungo die.

7.- Ebaluazioa

Zein produktu saldu nahi digute iragarkiek? Nolako ezaugarriak ditu iragarkiak?
Zein da bere lema? Zein gauza edo pertsona dago saltzen den produktuarekin erlazionatuta?
Nolako ezaugarriak ditu gauza edo pertsona horrek? Nolako mezuak igortzen ditu iragarkiak?
Nolakoa da iragarkiaren lengoaia? Iragarkia diskriminatzailea al da? Sexista al da?

8.- Iturria

BAKEOLA. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. Bilbo. 2004.